

politika

■ 'Egin auzia'

Garzonek Gorostiaga eta Zapiain galdekatu ditu, baina ez du neurrik hartu haien kontra → 9

gizartea

■ Justiziako plantilla dekretuaren gaineko errekurtsoa kentzeko eskatu dio Jaurlaritzak Madrili → 10

ekonomia

■ Frantziako Gobernuak pentsio fondo osagarria eratuko du → 14

nazioartea

■ 400 bat soldatu britainiar erretiratuko dira Ipar Irlandatik → 18

■ Estatu batuarrek Clintonen alde agertu dira aitopen bideoa zabaltzeko ondoren → 19

kirola

■ Darko Kovacevici lau partiduko zigorra ezarri dio Lehiaketa Batzordeak → 20

kultura

■ Oteizaren lanen erakusketa zabaltzeko Windsor galeriak, artistari gorazarre egiteko → 33

Elkarrizketa bidezko irtenbidea posible ikusten du Jaurlaritzak

Su-etenarekin Ajuria Eneko Ituneko 10. atalak ezarritako baldintzak betetzen direla dio

■ ETA-K aldarrikatutako su-eten mugagabea «oso garrantzi handiko gertakizuna» dela nabarmendu du Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, eta aldarrikapen horrek Ajuria Eneko Hitzarmenaren 10. atalak ezarritako baldintzak betetzen dituela erantsi du: gatazkari elkarrizketa bidezko irtenbidea emateko baldintzak betetzen direla, alegia. Jose Antonio Ardanza lehendakariak, berriz, ETari «distentsio keinuren bat

egitea» komeni dela esan du, Bruselan, eta Madrilera presoak Euskal Herrira gerturatu beharko lituzkeela erantsi. Iruñean, beste-



Jose Antonio Ardanza:

«Espainiako Gobernuak presoak hurbilduko balitu, lasaitasuna emango lioke ETaren inguruari»

tik, Miguel Sanz eta Juan Jose Lizarbe bildu ziren atzo, gaiari nola heldu aztertzeko. UPNko lehendakaria eztabaida Parlamentura eramatearen alde agertu zen, eta PSNko buruzagia, al-diz, Iruñeko Mahaia biltzearen alde. HBk, berriz, adierazi du «PPren eta PSOEren gainetik» euskal gizarteak martxan jarriko duela bake prozesua. Permachek esan zuen PPK eta PSOE ez dutela nahi «Euskal Herria tuneletik irtetea». → 4-8

BERNARDO RODRIGUEZ / EFE



Abortuaren Legea zabaltzeko ezezkoa eman dio Kongresuak

Lau diputaturen boto aldaketak 172-173ko emaitza eragin du bozketan

■ ABORTATZEKO aukerak zabaltzeko lituzkeen legeri ezezkoa eman zion atzo Espainiako Kongresuak, boto bakar baten aldearekin: 172-173. PPK eta Uniok aurkako bozari eutsi zioten, PSOE, IU, Nueva Izquierda-IC, BNG eta Iniciativa per Catalunya aldekoari, eta, EAJ, Convergencia eta Koalizio Kanariarreko zenbait diputaturen boto aldaketak apurtu zuen berdinketa. Besteren artean, EAJko Joxe Joan Gonzalez Txabarrik baiezkotik ezezkoa aldatu zuen botoa, eta alderdi bereko Jon Zabaliak ere -otsailean ez zen izan- ezezkoa eman zuen.

→ 16

Trebiñon erreferenduma egiteko eskatu du Jaurlaritzak

■ Espainiako Gobernuak du orain hitza, Estatutuan aurreikusitako azken urratsa egin baita → 9

Egunkaria
KLASIKOAK

Gaur zure kioskoan

Egunkaria

+ 550PTA. / 24LIB.